

Euskal poesia alemanera itzulia

Eguna: 2010eko urtarrilaren 29a

Lekua: Gasteizko Letren Fakultatea (eta Lurdes eta Hans Joachim Berlindik)

Bertaratuak: Elena Martinez, Ibon Uribarri, Hedoi Etxarte, Nagore Tolosa, Naroa Zubillaga, Zuriñe Villar, Eli Manterola, Isabel Cantero, Petra Elser, Xabi Intxausti, Marijo Telletxea, eta Berlindik Lurdes eta Hans Joachim.

Hasiera-hasieratik izan zen berezia 2010eko urtarrileko bilera, hain zuzen ere, teknologia berriak erabilita (zehazki, *Skype* programa), Berlinen bizi diren EuskAlemako kideekin harremanetan jarri ginelako. Aurretik ere egin genuen saiakera bat, baina *chat* moduan. Egun hartan, ordea, zuzen-zuzen hitz egin eta ikusi genuen elkar.

Gaia, “euskal poesia alemanera itzulia”. Berlinen egindako Euskal Koreografoen I. Jaialdian Kukai-Tanttaka taldea gonbidatu zuten, eta talde horrek Sarrionandiaren hainbat poema musikatu eta taularazten dituzenez, Lurdes, Hans eta Constanz-ek poema horiek alemanera itzuli zituzten (Kukai-Tanttakakoek euskaraz eta gaztelaniaz baino ez zituztelako). Material hori oinarri eta itzultzaileekin zuzenean hitz egiteko aukera paregabea genuela aprobetxatuta egin genuen bilera.

Hona hemen bertan aipatu ziren ideia nagusiak:

- Poemen itzulpen gordina Lurdesek egin zuen. Jaialdia hasi aurretik bi aste zeuzkaten horretarako, eta Lurdesek aurreneko astea eman zuen lehen zirriborroa egiten eta, ondoren, hurrengo astean, Hans eta Konstanz-ek beren zuzenketa eta iradokizunak egin eta behin betiko bertsioa orraztu zuten. Aurreneko zirriborroari egindako zuzenketak gramatika kontuak izan ziren batez ere, edo aleman hizkuntzari dagozkionak.
- Lurdesek esan zuenez, itzulpena egiterakoan, jatorrizkoari baino, aleman hizkuntzaren erritmoari jarraitu zion. Horregatik dira itzulpenak nahiko libreak (batez ere aurrenekoa, “kiromantzidxa”). Horrek eragina du baita ere formatuan, alemanezko bertsioak ez baitio jarraitzen euskarazkoaren estetikari (tabulazioak, baina baita lerroen ordena ere). Alemanaren erritmoari men egin nahi izan diote, hau da, jendaurrean irakurtzeko moduan idatzita egotea, eta horrek bultzatu zien estetika ere aldatzea.
- Aurreko puntuan esandakoa bereziki nabarmena da “Begi hurrinei bertsoak” poeman, berez, bertso bat baita euskarazkoa, eta ezinezkoa izan zen alemanezko itzulpenean metrika bera errespetatzea.

Poemaz poema:

- Kiromantzidxa:
Bizkaieraz dago idatzia (nahiko ilun, gainera), baina Lurdesek bizkaitarrak omen ditu gurasoak, eta laguntza handia izan omen zitzaion zenbait kasutan.
11. lerroan “dana lanbrotute ikustot paña” “ich sehe alles undeutlich” eman zuten, baina bileran bestelako aukerak ere atera ziren (erreferentzia meteorologikoa ez galtzarren): wie im Nebel, verschwommen.

43. lerroa ez zuten itzuli (kontuek atara sein ete da ba sure erru larriduxori);
“deine Schuld muß sehr groß sein”

63. lerroan euskarazko “kitto...” bakartuta utzi da alemanez, “also” moduan.

65. lerroan “kalien dabixen presidxuekas” “...mit den heutigen Preisen” dago itzulita, baina Elenak esan zuen moduan, “kalean” horrek gartzelari egiten dio erreferentzia, Sarri bera “barruan” zegoela, alegia, eta, beraz, hobe “mit den Preisen draußen”

- Begi hurrinei begira:

“und habe mich am Fenster hingesezt” baino “ans Fenster hingesezt” behar luke.

“hormetan zehar” “entlang den Mauern” dago itzulita. “Durch den Mauern” jartzeko aukera eztabaidatu zen, baina, azkenean, biak ere ondo daudela esan zen.

- Tarantela

Petraren ustez, oso ondo itzulia.

- Iluntasuna nehurtzen

Poema hau itzulita dago alemanera, “hau da ene ondasun guzia” lanean! Interesgarria litzateke begiratzea konparatzeko.

Azken bi lerroek eman dute hemen buruhauste gehien “ilunbetan bizitzen jakin arte ez dugu argi bizitzen jakingo”. Honela dago emana: “Solange wir nicht lernen, im Dunkeln zu leben, werden wir nicht im Hellen leben können”. Iluntasuna/argitasuna kontrasteaz gain, euskarazkoan “argi bizi” esapideak badu beste konnotazio bat, eta hori zaila da alemanez gordetzea. Dena den, hona bileran egondako proposamen batzuk:

- Werden wir nicht aufwachen können (“argi bizi” esapidea gordetzeko, baina ilun/argi kontrastea galzten da)
- Werden wir nicht im Klaren/im Klarheit leben können.
- Werden wir niemals Klarheit haben / werden wir im Leben nie Klar sehen
- Bertold Brecht-en poema batean antzeko zerbait ageri da, eta erreferentzia moduan erabil liteke...honela erabiltzen du Brechtek: “denn die einen sind im Dunkeln und die andere sind im Licht”

- Oroitzen zaitudanean, ama:

3. lerroan, “mahaia bostentzat atondu..” itzultzerakoan, alemanez “mit gedecktem Tisch für fünf” jarrita, eta aurretik nahiz ondoren nola jarraitu den ikusita, badirudi mahaia ez duela amak atondu, horregatik, enumerazioari jarraitzea hobe zela esan zen, euskarazkoak egiten duen moduan: “bist du in der Küche, deckst du den Tisch für fünf, setzt dich auf den Stuhl und betrachtest den Winter...”

Azken bi lerroetan, “und ich bin –ich weiß es-, auf dem Grund deiner Augen” hobe honela ematea: “und ich weiß, dass ich tief in deinen Augen bin”

- Inongo lekuak:

Izenburua arraro samarra da euskaraz ere. Alemanez “Nirgendorte” eman da, eta beharbada “Nichtort” eman zitekeela ere proposatu zen. Hala ere, interneten bilaketa eginda, “Nirgendort” hitzak badu erabilera.

“Geratu egiten gara ala joan”. Euskaraz ez da galderarik egiten, nahiz eta...galdera ikurrik agertzen ez bada ere, zalantza moduan irakur daitekeen. Dena den, poema irkurtzen jarraituta, argi dago baieztapena dela. Beraz: “wir bleiben oder wir

gehen” edota “entweder bleiben wir oder gehen wir” edo antzeko zerbait eman beharko litzateke.

Gasteizen, 2010eko otsailaren 2an.
Argi bizi!